

Gaiaren lerro nagusiak.

Aurreko urtetan landu diren gaien sakontzea egingo da ikasgai honetan. Lurrazaleko dinamikatik abiatuta, eta plaken tektonika erreferentzi moduan hartuta, penintsulako eta Euskal Herriko historia geologikoa ulertzeko urratsak ematen dira. Gaur egun ikusten dugun errealitatea (erliebeak, egiturak,...) ulertzeko eta interpretatzeko beharrezkoak diren ezagutzak jasotzen joango gara: harri eta mineralak, nola sortzen diren, sedimentazio, magmatismo prozesuak,...

Edukiak.

1. Lurra planeta eta bere ikerkuntza. Sarrera.

2. Mineralak.

Mineral-kontzeptua. Egitura kristalinoa: sare eta sistema kristalografikoak. Mineralen propietateak. Mineralak harriak sortzen: silikatoak eta silikatodunak ez diren harrien mineralak.


3. Harriak.

Harri-kontzeptua. Harri igneo, metamorfiko eta sedimentarioen testura, egitura eta konposizioa. Harri sedimentarioen beste mota batzuk.



4. Plaken tektonika. Teoria globala.

- Plakak, motak, mugimenduak, ertzak,...
- Deformazio-egitura: failak, arraildurak eta tolesturak. Zamakadurak eta lerradura-mantua. Diapiroak.
- Tektonika-estilo nagusien ezaugarriak: germaniarra, jurasikoa eta alpinoa.
- Plaken mugimenduen eboluzioa denboran.



5. Kanpoko prozesu geologikoak.

- Meteorizazioa eta lurzorua.
- Lurjauziak.
- Uraren ekintza.
- Glaziarra.
- Itsasoa. Korrontek.
- Haizea. Basamortuak.
- Erliebe karstikoa eta granitikoa.
- Egitura eta erliebea.

6. Geologia-denbora. Geologia historikoa.

- Geologia-denboraren kontzeptua.
- Datazio-metodoak: datazio erradioaktiboaren eta paleontologikoaren metodoak geologian. Hurbilketa.
- Geologia-denboraren eskala: aro handiak eta haien aldi geologikoak. Horien aplikazioa geologia-mapak interpretatzeko.
- Euskal Autonomia Erkidegoaren historiako geologia-arrok.



- Aldaketa klimatikoak

7. Arrisku geologikoak.

- Arrisku naturalak. Motak
- Arriskuen gestioa.
- Aurreikuspena, neurriak.



8. Baliabide mineralak eta energetikoak. Lurrazpiko urak.

- Baliabide berriztagarriak eta ez berriztagarriak.
- Harrobiak. Ustiapen jasangarria.
- Ziklo hidrologikoa.
- Ura baliabide modura.



9 . Espainiako eta Euskal Herriko geologia.

- Iberiar penintsulako geologia-unitate handiak. Plaken higidurarekin duten erlazioa, gertakari nagusiak.
- Euskadi-Kantabria Arroaren geologia-ezaugarri nagusiak eta haien bilakaera aztertzea.
- Euskadi-Kantabria Arroaren egungo erliebearen eta haren geologiaren arteko erlazioa.

